

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

ASTEAZKENA, 2023KO

MAIATZAREN 31

XX. URTEA, 5.383. ZENBAKIA

Uda denboraldia hastear da hondartzetan eta igerilekuetan

Zarautzen eta Orion aurreratu egin dute sorospen zerbitzua. Azkoitian eta Azpeitian laster zabalduko dituzte estali gabeko igerilekuak. TAO sistema ere martxan jarriko dute bailaran // 2



«Immigrazioa konstantea izango da, eta gure gizarteko osagai iraunkorra»

Xabier Aierdi

Begirune fundazioko soziologoa

Larunbatean, Sahara Eguna ospatuko dute Azkoitian, eta horren harira, hitzaldia emango du Aierdik gaur Elkargunean. Migrazio prozesuez ariko da // 6

Adimen artifiziala lantzeko saioak antolatu dituzte Azpeitian

Kulturaz kooperatibak CAF-Elhuyar saria eskuratu du, eta horren harira, jardunaldiak egingo ditu ekainaren 17an. Egun osoko egitaraua prestatu dute // 7



UTZITAKOA

«Gero eta gutxiago entzuten da irrintzia»

AMAIA GARCIA

IRRINTZI IRAKASLEA

Irrintziaren transmisioa bermatzeko, irrintzi ikastaroa emango du Garciak Getarian. Haren arabera, «nerabezaroan gustuko pertsona ikusitakoan sentitzen den emozioa» eragiten du bizitzan botatako lehen irrintziak // 4

Hastear da udako bainu denboraldia igerileku eta hondartzetan

Zarautzen eta Orion bi aste aurreratu dute sorospen zerbitzua • Azkoitian eta Azpeitian datorren astean zabalduko dituzte estali gabeko igerilekuak

– JABI GONZALEZ TOSTON

Gero eta gertuago daude uda eta horrek berarekin dakartzan beroa eta eguraldi eguzkitsua. Horrek esan nahi du, era berean, eskualdeko hondartzak eta igerileku irekiak aurki hasiko direla jendez betetzen. Hala eta guztiz ere, askok dagoeneko hartu dituzte lehenengo bainuak. Kostaldeko herrietan, batez ere, maiatzeko egun beroenak aprobetxatu dituzte herritarrek Kantauri itsasoko ura probatzeko.

Soroslerik gabe egin dute hori orain arte, baina bihurtik aurrera izango dira; Zarautzen, behintzat. Izan ere, bi aste aurreratu dute sorospen zerbitzua aurten, eta ekaineko lehenengo egunetik hasiko da. Beste behin, BPXport XXI enpresak emango du sorospen zerbitzu hori eguneroko, 11:00etatik 20:00etara, eta 24 sorosle, hondartzako buru bat, itsas motorretako bi patroil, an-

bulantzia gidari bat eta erizain bat ariko dira bainularien segurtasuna bermatzen. Hondartza sei bainu eremutan banatuko dute, eta, ohi bezala, moilako bainu guneak ere izango du soroslea.

Halaber, taldoen, doako dutxen eta komunen zerbitzuak nahiz hondartza inguruko garbiketarako lanak bihar hasiko dituzte. Gainera, udalak jakinarazi du EMAS ziurtagiriaren bandera izango duela Zarauzko hondartzak aurten ere, besteak beste, kerik gabeko gune izaten jarraitu nahi duelako.

Orion ere aurreratu egin dute sorospen zerbitzua. Herritarrek hala eskatuta luzatu du denboraldia udalak, eta, beraz, ekaineko lehen bi asteburuetan eta irailko azken hirurutan ere izango dira sorosleak hondartzan. Edonola ere, eguneroko ohiko zerbitzua ekainaren 15etik irailaren



Tolderoek jada jarri dituzte zutoinak hondarretan. ARITZ MUTIOZABAL

15era eskainiko dute, 11:00etatik 20:00etara. Orion ere, BPXport XXI arduratuko da bainularien segurtasuna bermatzeaz.

Udalak zehaztu du, era berean, Antillako kabinak ekainaren 15era arte ez dituztela zabalduko. Hortik aurrera, eguneroko izango dira martxan irailaren 15a arte, 11:00etatik 22:00etara, eta komunak eta dutxa hotzak doakoak izango dira.

Horrez gain, hondartzako tresnak leihatilari gordetzeko aukera ere egongo da Orion, eta prezioak honakoak izango dira: aulkientzat, paipoentzat eta eguzkitako aterkientzat eguneko prezioa 60 zentimo, astekoa 2,50 euro, hilabetekoa 7,50 euro eta denboraldi osokoa 20 euro; etzaulkientzat eta surf taulentzat, berriz, egune-

ko prezioa 80 zentimo, astekoa 4,50 euro, hilabetekoa 12,50 euro eta denboraldi osokoa 30 euro.

Getarian eta Zumaian, aldiz, ohiko datei eutsiko die hondartza denboraldiak: ekainaren 15etik irailaren 15era izango dira. Getarian, Gurutze Gorriak kudeatuko du sorospen zerbitzua 11:00etatik 19:00etara, eta bainu egokituak eskaintzen jarraituko dute. Zumaian, kostaldeko herri gehienetan bezalaxe, BPXport XXLe emango du zerbitzua, eta 10:30etik 20:00etara egingo du. Udalak jakinarazi du, bestalde, aurten indartu egin dutela hondakinak biltzeko zerbitzua.

Igerileku irekiak

Urola bailarako herrietan ere izango da bainu segururako au-

kerarik. Hori horrela, Azkoitian eta Azpeitian aurten ere zabalduko dituzte igerileku irekiak.

Azkoitiko Ugarteigarango igerilekua izango da zabalitzen aurrena; datorren asteko ostiralean, ekainaren 9an, irekiko dute. Astelehenetik igandera eskainiko dute zerbitzua, irailaren 10era bitartean, 10:30etik 20:00etara, eta Gurutze Gorriko sorosleak arduratuko dira erabiltzaileen segurtasuna bermatzeaz.

Azpeitian, berriz, Azkoitian baino egun bat geroago zabalduko dute igerilekua; ekainaren 10ean, larunbata, alegia. Hiru hilabeteko epean, irailaren 10era bitartean, eguneroko hartu ahaliko dute bainua herritarrek 11:00etatik 20:00etara, BPXport XXIeko sorosleen zaintzapean.

TAO zerbitzua bihurtik izango da indarrean kostan

– J. GONZALEZ TOSTON

Urola Kostak bisitari ugari erakartzen ditu, eta, ondorioz, autoz betetzen dira herriak. Horrek aparkatzeko arazoa eragotzen ditu, eta, horri aurre egiteko, TAO zerbitzua eta egoiliarrei zuzendutako guneak indartzen dituzte udalak; kostaldean, batez ere. Bada, Getarian, Orion eta Zarautzen bihar bertan abiatuko dute udako TAO zerbitzua.

Hala, Getarian, ohiko zonaldeetan jarriko dute martxan TAO

sistema iraila amaitu arte: hondartza, moila eta portu inguruan, hain zuzen ere, 10:00etatik 20:00etara.

Orion ere ordutegi bera izango dute, baina irailaren 15era arte iraungo du zerbitzuak. Udaldiko TAOk egonaldi luzeko eremuak eragingo die; izan ere, errotazio handiko eta egonaldi laburreko eremuetan urte osoko ordutegiei eutsiko zaie. Bestela esanda, egoiliarrek ez diren eguneroko ordaindu beharko dute bihurtik aurrera ibilgailua hondartza al-

dean, Abaromendin, Autobide Azpian edo Munton uzteagatik.

Zarautzen izango da berritasun gehien. Izan ere, prezioei eutsiko zaie arren, aurten ezingo da ibilgailurik utzi Messileko aparkalekuan, Salberdin hegoaldeko etxebizitzak eraikitzeke lanak direla eta. Eguzki Izarrako partzelan ere gauza bera gertatuko da, baina udalak adierazi duenez, dagoeneko ari dira lanean uda honetan Hegoalden 400 ibilgailu hartzeko edukiera izango duen aparkalekua ahalbidetze-

ko. Tarifa berdekoa litzateke gurea, eta 09:00etatik 20:00ak artekoa ordutegia izango du. Hala, ber, disuasioko aparkalekua ahalbidetuko dute Astin.

Zumaia salbuespena

Zumaia izango da eguneroko TAO zerbitzua beranduen abiatuko duen kostaldeko herria: ekainaren 15etik aurrera egingo du, eta aparteko berritasunik gabe. Dena den, udalak ohartarazi du egoiliarrek txartelak beritu beharko dituztela zerbitzua in-

darrean sartu aurretik, eta horretarako egunotan postontzian jasoko duten agiria ordaindu beharko dutela. Ekainaren 9a izango da horretarako azken eguna.

Kostan ez ezik, barrualdeko hainbat herritan ere badarabilte TAO sistema aparkalekuak arautzeko. Udari begira, ordea, Azkoitian soilik izango da aldaketarik. Plazaberrin eta Aizkibel kalean aparkatzeko tiketa jarri behar izaten dute herritarrek ordutegi mugatuarekin, baina abuztuaz egin beharko.

Raixta Eguna ospatuko dute ekainaren 10ean Emakumeon* Etxean

‘Elkarrekin piztu duguna’ lelopean ospatuko dute bigarren urtez jarraian Raixta Eguna, herriko emakume sortzaileen erakusleioa izatea helburu duen festa.

–INTZA TRULA Zumaia

Raixta Eguna ospatuko dute ekainaren 10ean Martxoak 8 plazan. Zumaia Emakumeon* Etxeko uda aurreko festa izango da, eta bertan, etxeko parte hartzaileekin bizipenak elkarbanatu, etxean gertatzen dena herri-ratu, plazara atera, emakume sortzaileei lekua egin eta proiektuaren berri ez duenak hura ezagutzeko aukera izango du. Usue Altuna Emakumeon* Etxeko dinamizatzaileak azaldu duen moduan, «emakume sortzaileen erakustoki izateaz gain, Emakumeon* Etxean urte osoan egindako lana plazaratzea eta herrian zabaltzea da asmoa».

Raixta pospoloa pizterakoan sortzen den onomatopeia da; hortik dator *‘Elkarrekin piztu duguna’* egunaren leloa. Aurten ere Zumaia arlo ezberdinetako sortzaileak izango dira eguneko protagonistak, hala nola artisauak, musikagileak... Horrez gain, emakume sortzaileek euren jakintza elkarbanatzeko tailerrak ere antolatu dituzte, eta urte osoan zehar eskaintako tailer eta ikastaroetan parte hartu duten emakumeek ere egitarauan parte hartuko dute.

Goiz partean, 10:00etatik 15:00etara, Zumaia Emakume sortzaileen postuak izango dira Martxoak 8 plazan. Guztira, hamar postu jarriko dituzte; horien artean, bitxigintza, gantxilloz egindako produktuak, zeramika, poltsak, motxilak eta panpinak egongo dira.



Raixta Egunaren lehen edizioako bazkariko artxiboko argazkia. UTZITAKOA

Emakume* Sortzaileen Azokarako deia

Zarautzen ere Emakume* Sortzaileen Azoka prestatzen ari dira. Uztailaren 15ean egingo dute, larunbatez, eta zabaldu dute jada Emakumeon* Etxeak antolatutako ekintzan izena emateko epea. Ekainaren 4ra arte izango dute parte hartzaileek izena emateko aukera. Egitasmoak emakume sortzaileen erakusleio izateko helburua dauka.

Belauntzaren plazan egingo dute azoka, Emakumeon* Etxearen aurrean. Goizez, 10:30etik 14:30era egongo da zabalik, eta bertan herriko artistak, ekintzaileak eta sortzaileak biltzea da asmoa.

Postua jartzea nahi dutenek emakumeenetxea@zarautz.eu s helbidera idatzi behar dute, izen-abizenak, telefonoa, eta egiten den lanaren lau argazki eta deskribapena adierazita. Igandean, 09:00etan amaituko da izena emateko epea.

Zarautzko Emakumeon* Etxeak karpak, mahaia eta

aulkiak jarriko ditu sortzaileen eskura azokaren egunean. Horrez gain, beste zerbait behar izanez gero, aurrez zehaztutako helbidera bidalitako mezuan adierazi beharko da.

Zalantzak argitzeko edo informazio gehiagorako, Zarautzko Emakumeon* Etxeari jar daitezke herriarrak harremanetan; telefono bidez (943-00 51 36), posta elektronikoz bidez (emakumeenetxea@zarautz.eu) edo beren bulegoan (asteleheneretik ostiralera, 10:30etik 12:30etara eta 15:30etik 20:30etara).

Altunaren hitzetan, aurreko urteko batzuek errepikatuko dute, baina sortzaile berriak ere animatu dira aurtengoan. Horrez gain, hark azaldu du Emakumeon* Etxeak postua jarriko duela «bazkietza kanpaina sustatzeko eta Emakumeon* Etxeko materiala erosteko». Halaber, emakume sahararrek ere henna egiteko eta tea hartzeko postua jarriko dute.

Sortzaileen postuez gain, kontzertu, tailer, hitzartze eta bertso bazkaria ere izango dira. Txartelak salgai daude Turismo Bulegoan eta Emakumeon* Etxean ekainaren 5era arte. Emakumeentzat* soilik izango da.

Raixta Eguna

EKAINAK 10, LARUNBATA

10:00. Sortzaileen postuak Martxoak 8 plazan, 15:00ak arte.

10:00. Trikitilariak eta koplak.

10:00. Saharako emakumeen errealitatea ezagutzeko, hitzartzea sahararren eskutik, Martxoak 8 plazan.

10:45. Sukaldaritza agroekologikoa lantzeko tailerra. Bertan parte hartzeko, beharrezkoa izango da lehenago izena ematea.

10:45. Trabiesa luzeetarako mendiko motxilak egiteko tailerra.

11:30. Bodypainting tailerra.

12:00. Zaintza dinamikaren jarraipena. Zaintzaren gaia lantzeko, hasitako dinamika jarraipena nola eman aurkeztuko dute.

13:00. Txalapartariak eta plaza dantzak.

13:30. Zumaia hainbat emakume musikariek kontzertu laurrak eskainiko dituzte ohol-tza txikian.

15:00. Bertso bazkaria Amaia Agirre eta Uxue Alberdirekin.

17:30. Batukada kalejira herrian zehar.

Zozketak



HITZAhide en TXOKOA

20

Urolako Komunikazio Taldeak [UKT]

GUKA produktu sorta osoa: Toalla, poltsa, palak eta botila

Hedabide guztietako bazkideen artean

[Zozketa zenbakia: 20]



29

SASKIALOIA

GUUK GIPUZKOA BASKET - LEYMA CORUÑA

Ekainak 2, ostirala 20:00etan eta galduz gero bigarren partida ekainak 4, igandea 12:00etan. Iñobe estadioan [Zozketa zenbakia: 29]

Sarrera bikoitz bat partidu bakoitzeko.



VS



«Irrintzilariak misio bat du: ondare hori transmititzea»

AMAIA GARCIA IRRINTZI IRAKASLEA

Amaia Garcia irrintzi irakasleak doako tailerra emango du bihar irrintziaz Iturzaeta aretoan, eta burmuineko sistema linbikoa aktibatzen duen soinu bereziaz mintzatu da tailerraren bezperan.

–ONINTZA LETE ARRIETA

Duela hamasei urte inguru sortu zituzten irrintzi ikastaroak Gernikan (Bizkaia), eta Amaia Garcia (Bermeo, Bizkaia, 1971) ia-ia ordutik dabil Euskal Herrian barna irrintzi tailerrak ematen. Bihar iluntzean, esaterako, Getarian eskainiko du –20:00etan, Iturzaeta aretoan–.

Irrintzia botatzeko ezarria da muga, ala lotsa muga handiago da?

Muga handiena norberaren burua da; ez dago bestelako mugarik, arazo fisiko zehatzak kenduta. Izan ere, diafragmarekin eta perineoarekin lotuta dago irrintzia. Presioa ahots harletatik behera egin behar da, perineoa uz-kurtuta.

Zeuk nola ikasi zenuen irrintzia botatzeko?

Neure aitari entzunez. Transmisioa beti izan da horrela: plazan norbait entzun irrintzia botatzen, eta imitazioz hasi norbera. Baina gaur egun gero eta gutxiago entzuten da irrintzia, eta transmisioa gero eta zailagoa da. Beraz, ikastaroen formatu honek balio du norbere buruari botatako erronka gainditzeko.

Urte asko daramatzazu irrintzi ikastaroak eskaintzen han-hemenka, ezta?

Gernikako Berbalagun taldeari bururatu zitzaion irrintzi ikastaroa antolatzea duela hamasei urte. Ikastaro hura Nati Ibarak eman zuen, baina zoritxarrez, zendu egin zen, eta niri pasatu zidaten testigua. Hamalau-hamabost urte daramatzat irrintzi ikastaroak ematen Euskal Herri osoan zehar. Hasiera hartan, irrintziari buruzko informazioa

aurkitzea izan nuen erronka handiena, ez dagoelako ia ezer idatzita.

Eta nola moldatu zinen?

Definizioak entziklopedietan aurkitu nituen, eta fisioterapeutaekin harremanetan jarri nintzen, jakiteko zer gertatzen den gure gorputzean; horri buruzko informazioa ere eskuratu nahi nuen. Handik urte batzuetara, ikerketa foniatrikoa egin zuten irrintziari buruz Nafarroako Klinika Unibertsitarioan, Medikuntza fakultateko foniatria atalean. Hori ikusita, beraiekin harremanetan jarri nintzen gaiaz pixka bat gehiago ikasteko asmoz.

Zer zioen ikerketa hark?

Ana Martinez de Arellano foniatra ezagutu nuen orduan; irrintziari buruzko doktoretza dauka hark eginda. Saiatu da azaltzen irrintziak, ikuspuntu foniatrikotik, dituen ezaugarri bereziak; ezaugarriok bakarrak dira. Ezagurri berezi hori da *m* formako



UTZITAKO

harmonikoak sortzen dituela irrintziak; hori ez da sortzen beste inolako emisiotan. Irrintziari buruzko irrintzia botatzen zuten momentua aztertzen aritu zen espektograma izeneko makinaren bitartez, eta horrela jakin zuen berezitasun hori zuela. Haren bitartez, asko ikasi dut irrintziari eta teknikari buruz.

Ikastaroak emateko ere balio izan al dizu jakintza horrek?

Hein batean, autodidakta ere izan naiz; neure kasa prestatu ditut irrintzia botatzeko erakusteko ariketa onenak. Biharko Getariako ikastaroan, esaterako, galiziarrek egiten duten irrintziaren antzeko emisioa entzungo dugu; *aturuxo*-a. Ikastaroaren helburua da irrintzia botatzeko dakienak adorea hartzea irrin-

tzilari bihurtzeko, eta beste helburua da transmisioa bermatzea. Ikastaroak bi ordu irauten badu, bermatuta dago irrintzia botatzeko amaituko duela parte hartzen duen orok. Behin beldurra kenduta, ikasita, baliabide hori erabiltzen jarraitzea da gako, eta behin irrintzilari bihurtuta, norberak misio bat du bizitzan: ondare hori transmititzea familiari, lagunei... Hori mantendu egin behar da, gure kulturaren parte delako, eta, gainera, Ekain Martinez de Lizarduyren dokumentalean ikusiko dugun bezala [irrintzi tailerraren aurretik botako dute *Erraiak* lana], antzina-antzinatik datorren transmisio bat delako. Ez dakigu nondik datorren, baina 2023. urtean aldarri hori existitzen da, eta mantendu egin behar dugu.

haurren dantza emanaldia, herriko frontoian.

22:00. Gure Txeruren eskutik, helduen dantza emanaldia: *Za-harretan berri* dantza ikuskizuna. Musikiariak: Pepita Enbil musika eskola, Getariako Musika Banda eta Gazte Alaiak txistulariak.

EKAINAK 3, LARUNBATA. EUSKAL JAIEGUNA

Goizean. Txistulariak, trikitilariak eta pandero jotzaileak kalez kale.

09:00. Gazte Alaiak taldeko txistulariak kalez kale.

10:00. Musika eskolako trikitilariak eta pandero jotzaileak kalez kale.

11:30. Musika eskolako haur trikitilariak kalez kale eta plazan.

12:30. Plaza dantzak txistulariekin eta trikitilarekin, plazan.

Bitartean. Mikro irekia irrintziak botatzeko. Irrintzi onena sarituko da.

13:30. Larraín dantza, plazan.

17:00. Arrapaladan taldearekin triki-kalejira.

19:00. Kantujira Taberna Ibiltariarekin.

22:30. Erromeria Bide Batez taldearekin, plazan.

Irrintzia eta antzeko soinuak zer emozioekin lotzen diren eta zer helburu duten jakiterik ba al dago? Zer diote ikerketek?

Oso primarioa da. Irrintzia botatzen duzunean –aipatutako dokumentalean agertzen da antropologo bat hori azalduz–, gure burmuinean sistema linbikoa aktibatzen da, eta hori emozio primarioekin aktibatzen da, bizirauteko balio digutenekin: poztasunak, esaterako, gure sistema erreproduktiboa aktibatze-ko balio du. Irrintzilariei galde-tzen badiogu, esaten dute irrintzia botatzea barru-barrutik datorren sentimendua dela. Nerabezaroan, gustuko pertsona ikusitakoan behetik gora tximeletak sentitzen direnean bezalako emozioa eragiten du bizitzan botatako aurreneko irrintziak. Bestalde, amorruekin ere asko lotzen da, eta gaur egun manifestazioetan asko entzuten da irrintzia. Beldurra eragitea ere izan da irrintziaren helburu bat.

Zer kasutan, esaterako?

Erdi Aroko kroniketan agertzen dira aurreneko aldiz irrintziari buruzko aipamenak, eta horietan jasota dago Orreagako gudan euskaldunek nola botatzen zituzten halako garrasiak aurkariak izutzeko. Izan ere, irrintziak 120 dezibeliotik gorako indarra dauka, eta horrek esan nahi du gorputz osoa *mega-anplifikadore* bat bihurtzen dela. Aurkaria beldurtzeaz gain, irrintzilariari berari adorea emateko ere balio zion hastear zen borrokaldiaren aurrean irrintzia botatzea.

Komunikatzeko funtzioa ere izango zuen bere garaian irrintziak, ezta?

Bai. Entziklopediek beti lotu izan dute artzainen munduarekin. Euskal Herrian mendi asko ditugu, eta mendi magaletan artzainen txabolak daude. Bere garaian, funtzio praktikoa zeukan artzaintentzat: artzainek bazekiten txabola bakoitzean nor egoten zen, eta bazekiten artzain bakoitzaren irrintzia nolakoa zen. Hala, batek irrintzia botatzean, bestearen erantzunaren arabera –distantziagatik eta norabideagatik–, bazekiten beste artzaina txabolan ala ondoko mendian zegoen.

Irrintzilari mordoak bat sortuko zen zure ikastaroetan...

Urtean hamar bat ikastaro ematen ditut. Ezin dira asko ere egin, ezin duzulako egunero aldarrika aritu. Hala ere, kalkuluak egin da, esango nuke mila laguni baino gehiagori erakutsiko niola irrintzia botatzen.

Getariako Euskal Jaia

BIHAR, OSTEGUNA

19:00. *Erraiak* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Ekain Martinez de Lizarduyekin, Iturzaeta aretoan.

Jarraian. Irrintzi tailerra Amaia Garciaekin, Iturzaeta aretoan. Izen ematea gaur amaituko da; udaletxera bertararuta edo kultura@getaria.eus helbidera mezu idatzita egin behar da.

ETZI, OSTIRALA

18:30. Gure Txeruren eskutik,

Eskualdeko udaletako hautetsiak, alderdien eta generoaren arabera

Oraingo, zehaztuta dauden bederatzi herrietatik hirutan izango dira emakumeak alkate, eta 137 hautetsietatik erdiak baino bat gutxiago izango dira emakumeak.

-JULENE FRANTZESENA

Hauteskundeak igaro berritan, alderdi politikoak hausnarketa egiten eta negoziazioetan murgitzen hasi dira dagoeneko. Urola Kostako herri gehienetan zehaztuta daude Udal Gobernuak, baina badira aginte makilak dantzan dauden herriak ere. EH Bilduk eskualdeko 11 herrietatik zazpitan irabazi ditu bozak, aurreko udal bozetan bezalaxe: Aizarnazabalen, Azpeitian, Errezilen, Getarian, Orion, Zestoan eta Zumaian. Orion eta Zestoan, gainera, gorakada nabarmena izan du koalizioak. EAJ ere alderdi bozkatuena izan da gaur egun alkatetzak dituen herrietan, hau da, Aian, Azkoitian eta Zarautzen. Gehiengo absoluturik ez du lortu, ordea, Azkoitian eta Zarautzen, eta

oraingo alkatetzak ez ditu ziurtatuta.

Orotara, 137 dira eskualdeko udaletako hautetsiak. EH Bildukoak izango dira horietatik 74, 2019an baino sei gehiago -Zestoan bi gehiago, Orion lau gehiago, Zarautzen bat gehiago, Zumaian bat gehiago, Azkoitian bat gutxiago eta Aian bat gutxiago-. EAJk, berriz, 48 hautetsi izango ditu eskualdean, bukatze den agintaldian baino sei gutxiago -Zestoan bi gutxiago, Orion bi gutxiago, Azkoitian bat gutxiago eta Zumaian bat gutxiago izango ditu-.

Halaber, PSE-EEK ere hautetsi bat galdu du, 2019-2023ko datuekin alderatuta: lau ordezkari izango ditu eskualdean -Zarautzen bi, Azkoitian bat eta Zumaian bat-, Orion bat galdu-

ta. Herri plataformek, berriz, hamar hautetsi izango dituzte: Aurrena Beizama Baik bost, Azkoitia Baik hiru, Errezilgintzak bi eta bat Aiako Batzarre Burujabetzak. Orain Oriok zuen hautetsi bakarra galdu du, ez baita aurkeztu bozetara, eta Azkoitia Baik bi irabazi ditu.

Generoaren arabera

Igandeko bozen emaitzek Urola Kostako alkatetzak asko zehaztuta utzi dituzte, hainbat udaletan gehiengo osoa lortu dutelako hautes zerrenda batzuek. Dena den, ikusteko dago Azkoitian eta Zarautzen nork hartuko duen aginte makila ekainaren 17an. Gaur-gaurkoz, Urola Kostako 11 herriak kontuan hartuta, sei alkate izango dira gizonak, hiru emakumeak eta bi zehazteko

daude. 2019-2023 agintaldian zazpi gizon eta lau emakume izan dira alkate eskualdean.

Datozen lau urteetan Pedro Otaegi izango da Beizamako alkatea, Koldo Arzallus Errezilgoa, Mikel Arregi Zestoakoa, Haritz Alberdi Getariakoa, Iñaki Ostolaza Zumaikakoa eta Jon Ander Azpiroz Aiakoa; Errezilgo eta Aiako alkateak izango dira berriak udalean. Azpeitian, berriz, Nagore Alkorta izango da alkatea, Aizarnazabalen Mari Karmen Arregi eta Anuska Esnal Orion. Hiru emakume horiek aurreko agintaldian ere izan dira alkate.

Azkoitian EAJk irabazi ditu

bozak, Ana Azkoitia zerrenda-buru duela, baina Azkoitia Bairen eskutik dago alkatetzak lortzeko giltza. Zarautzen ere EAJ izan da nagusi, Xabier Txurruka buru duen zerrenda izan delako bozkatuena, baina PSE-EEK du erabakimena.


Bestalde, eskualdeko udaletan izango diren 137 hautetsietatik 68 izango dira emakumeak, eta bat gehiago, hau da, 69 gizonak. 2019-2023 agintaldian ere antzekoak izan dira datuak: bukatze den agintaldian 69 emakume eta 68 gizon izan dira hautetsi eskualdeko herrietan.

Iragarki laburra


Salgai

Azpeitia. Damaso Azkue auzoko taberna bat salgai dago. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 943-15 12 26.

Alkateak generoaren arabera



Hautetsiak generoaren arabera



BADATOR UDA!
Eskuratu GUKA produktuak

Informazio guztia: www.urolakosta.hitza.eus/denda/

«Immigrazioa
areagotuko da;
zifrek gora
egingo dute»

XABIER AIERDI BEGIRUNEKO KIDEA

Xabier Aierdi (Zeberio, Bizkaia, 1957)
migrazio prozesuez arituko da gaur,
Elkargunean. Zapatuan, Sahara Eguna
ospatuko dute herrian, eta horren bueltan
antolatuko dute soziologoaren solasaldia.

-ANDONI ELDUAIEN

Migrazio prozesuen inguruko hitzaldia eskainiko duzu gaur Azkoitian.

Egungo migrazio prozesuak nondik eta nora doazen ikustea izango da helburua. Orain arteko migrazio prozesua zer izan den eta datozen urteetakoa nolakoa izango den azalduko dut. Migrazio prozesuak asko haziko dira, eta horrek migrazioari buzurko iritzi errealista bat edukitzea ekarriko du. Egon daitezkeen posizioetan nahiz zurrumurruetan sakonduko dut.

Biztanleen %10 inguru da atzerritarra Azkoitian. Migrazio errealitate desberdinak izateak zailtasuna sortzen al du pertsonen integrazioan?

Ez. Herri baten konposizioan aniztasun handia egoteak ez du esan nahi halabeharrez gauzak gehiago zailtzen direnik. Kontua zera da: gizarte hartzaile bezala gaitasuna dagoen jende hori guztia hartzeko.

Eta ba al du gaitasunik?

Marokoarrak edota sahararrak 400 pertsona baino gehiago dira Azkoitian, eta 250 inguru pakistandarrek; horiek dira atzeritarren komunitate nagusiak. Ingaruko udalerriekin alderatuta, argi dago Azkoitian pakistandarrren faktorea oso garrantzitsua dela. Latinoamerikarrak gutxiago dira, nahiz eta gerora asko izan daitezkeen. Azkoitia gune berezia da; Eibar eta Elgoibar [Gipuzkoa] inguruan egon daitezkeen korridorea izan liteke Azkoitiari dagokiona. Hori ikusita, bertako egitura produktiboan

txertatu al daitezkeen edo ez es-
katzen du egoerak, baita enple-
guari dagokionez zenbat jende
jasoko duen ere. Atzeritarrak ja-
sotzeko faktore nagusia lana da,
ez da arrazoi kulturala. Era bere-
an, eragina du dibertsitateari au-
re egiteko zer gizarte eta kultur
politika egiten diren ere.

Zurruurruak, pertzepzioak eta jarrerak izango dituzu jomugan. Zenbateraino eragin dezakete faktore horiek atzeritarren integrazioan?


Estrukturalki egoera ondo badaoa, faktore horiek ez dute horrenbeste eragiten; bestela, ordea, bai. Migrazioa aztertzeko edota onartzeko ikuspegiak oso antzekoak dira mundu guztian.

“

**«Datozen urteetan,
immigrazioa zeharo
haziko da Azkoitia
bezalako herrietan»**

«Atzerritarrak jasotzeko faktore nagusia lana da; ez da arrazoi kulturala»

Edozein gizarte hartzaileari gustatuko litzaioke bakarrik bertakoekin bizitzea, kanpotik datorrena distortsio bat bezala hartzen da eta. Horregatik pentsatu behar da Azkoitiak edota beste edozein udalerri ez duela aparteko berezitasunik. Garrantzitsua da ikustea zer-nolako parametroetatik edo zer marko inter-



UTZITAKOA

pretatzailetatik aztertzen den immigrazioa. Zenbait ueste llaoren diren neurrian, onena da horiek baztertzea. Errealitatea zein den jakin, prozesuak nola garatzen diren ezagutu eta gizarte egituretan nahiz eguneroko bizitzan zer-nolako inkorporazioa dagoen ikusi behar da, orduan errazagoa izaten da-eta immigrazioa kudeatzeko. Gestioa egin behar da, eta horretarako, toki bakoitzeko berezitasunak aztertu behar dira, eta bi elementu ikusi: batetik, immigrazioa edonon erreparoz hartua dela, eta bestetik, herriaren osaketa, gero politika aiproposak eratzeko.

**Zurrumurru, pertzepzio eta jar-
rera horiek lehengoak izaten
jarraitzen al dute? Zein dira
egun jendartean diren zurru-
murru nagusiak?**

Zurrumuruak nahiko estrukturalak eta iraunkorrak dira; nekez aldatzen dira zurrumuruak. Garai bateko zurrumuru nagusia zen atzeritarrak hona gizarte laguntzak jasotzera zetozela. Lehen, immigrazioa aspektu ekonomikotik hartu ohi zen. Egun, kultur eremuetara igaro gara. Hori horrela, immigrazioa onartua dago gizartearen, neurri handi batean. Behinik behin, onartzen dugu immigrazioa kopuru bat

egonda, gehiago egon daitekeela. Horrek lasaitu egiten du egoera, eta onartu egiten da immigrazioaren prozesua. Zurrumarruak alda daitezke, baina ez gehiegi. Jarrerak berberak edo antzekoak dira immigrazioa aztertzerakoan, oro har. Immigrazioa beti ikusi izan da Troiako zaldia bezala.

Migrazio prozesuak aldatu egin al dira azken urteetan?

Aldatu ez, intentsifikatu egin dira. Azken hamabi urteetan, immigrazio prozesuek geldialdi pare bat bizi izan dituzte: bata, krisi ekonomikoa; eta bestea, pandemiak bultzatuta. Prozesuak ez dira aldatu, eta eboluzioa ere ez da gelditu. Datozen urteetan, immigrazioa zeharo haziko da Azkoitia bezalako herrietan. Orain arte oso garrantzitsua izan da immigrazioa zaintza arloan, baina etorkizunean oso garrantzitsua izango da industria eremurako. Demografiak zulo handia dugu hemen; ez dugu nahikoa jende enprestan lan egiteko, eta hori guztia immigrazioak beteko du. Era berean, aurreikusten da 400.000 pertsona beharko direla industria eremurako. Hemendik 30 urtera, ziurrenik, erdikidegoaren biztanleriaren errena edo laurdena immigrazioaileak izango da.

UROLA KOSTAKO HITZA
Asteazkena, 2023ko maiatzaren 31

Sahara Eguna

GAUR, ASTEAZKENA

19:00. Migrazio prozesuak: zurrumurruak, pertzepzioak eta jarrerak hitzaldia, Elkargunean, Xabier Aierdi Begirune fundazioko soziologoaren eskutik.

EKAINAK 3, LARUNBATA

11:30-14:00. Haurrentzako henna tailerra, mural pintaketa, marrazkiak eta eskulanak, plazan.

13:00etan. Saharako dantzak, herriko plazan.

14:30ean. Bazkaria (haragi eta barazki kuskusa) eta te dastaketa, plazan.

16:00etan. Alberto Bagosen Kolorasko, mundu bakarra ipuin kontaketa, herriko plazan.

17:30ean. Bertso saio musika-
tua, Kontzejupean. Aner Euzki-
tze, Naia Arrizabalaga, Ekhiñe
Zapiain zein Asier Alcedo ber-
tsolariak, Nora Eizagirre eta
Libe Goenaga musikariek. Gai
jartzailea: Haritz Alberdi.

19:00etan. Desio bat dut abes-
tiaren kantaldia, plazan.

Egun osoan. Musika eta Sahara-ko auziari buruzko erakusketa zein informazio gunea, plazan.

Oso beharrezkoa izango da, eta gainera, saihetsezina.

Immigrazioak egiturazkoa eta ugariagoa izaten jarraituko duela adierazi duzu. Zer esan nahi duzu horrekin?

Immigrazioa elementu konstante izango da, eta gure gizarteke osagai iraunkorra. Ezin dugu pentsatu immigrazioa kointarala dela, hona datorrela eta gero alde egingo duela. Ez, immigrazioa gelditzeko etorri da; nolabait betirako izango da. Etorkizuneko euskal gizartearen nahaste handiko gizarte izango da; tokian tokio nahasteak egongo dira, tokian tokio premien arabera. Ordea, ez da igarotzeko immigrazioa, baizik eta bertan bizitzeko gelditzeko immigrazioa. Seme-alabak izango dituzte, geratzen direnak bertan ezkonduko dira, ilobak izango dituzte, gure hezikuntza sisteman egongo dira, baita gure eguneroko bizitzan ere. Egituraren parte izango dira. Ez dakigu ehun urte barru euskal gizarteak nolakoa izango den, baina ziurrenik beltzagoa izango da, immigrazioaren osagaia oso garrantzitsua izango da eta. Ordurako, ziurrenik, atzeritarren hirugarren edo laugarren belaunaldia izango dugu gurekin. Immigrazioa areagotuko da; zifrek gora egingo dute.

'Ia dena: adimen artifiziala sorkuntzan' jardunaldia antolatu du Kulturazek

Kulturaz kooperatibaren 'Ia dena' egitasmoak CAF-Elhuyar sarien Zientzia Gizartean sorkuntza beka eskuratu du • Horren barruan antolatu dute jardunaldia ekainaren 17rako • Irekita dago Dinamoa sormen gunean izango diren ekintzetarako izen ematea

-NEREA URANGA

Ia dena: adimen artifiziala sorkuntzan egun guztirako jardunaldia antolatu du ekainaren 17rako Kulturaz kooperatibak. CAF-Elhuyar sarien Zientzia Gizartean sorkuntza beka eskuratu zuen Kulturaz *Ia dena* proiektuak, eta egitasmo horren barruan antolatu duten jardunaldia da.

Egun osoko saioak izango dira, eta goiz partean, Dinamoa sormen gunean egingo dituzte hitzaldiak eta mahai ingurua. Arratsaldean, berriz, Soreasu antzokian film emanaldiak eta hitzaldiak izango dira. Jardunaldiko goizeko saiorako sarrera doakoa da, baina aurrez izena eman beharko da. Izena Dinamoa sormen gunearen *dinamoa.eus* webgunean eman daiteke. Arratsaldean, Soreasu antzokian izango diren proiektioetarako sarrera, berriz, libreza izango da, eta aurretik ez da izenik eman beharko.

Jakin-mina dutenentzat

Antolatzaileek azaldu dutenez, jardunaldien helburu nagusia da «adimen artifizialaz tutik jakin gabe ere» jakin-min pixka bat duten edozeinentzako izatea: «Geuregandik hasita, jakina», adierazi dute. «Datorrigun munduaz edo jada hemen daukagunaz batera pentsatzea da nahi duguna, elkarri entzutea,



Dinamoa sormen gunea. KULTURAZ

Egitaraua

Ekainaren 17an, larunbatarekin, izango dira *Ia dena: adimen artifiziala sorkuntzan* jardunaldiak. Hona egitaraua:

DINAMOA SORMEN GUNEA

10:00. Aurkezpena. Kulturaz kooperatiba.

10:15. *Adimen artifizial sortzailea: guztia aldatu berdin jarraitzeko?* Josu Aztiria (Orai-Elhuyar Fundazioa).

10:45. *Datu meatzaritza, sormena eta aplikazioak*, Rosa Basa-

goiti (Mondragon Unibertsitatea).

11:15. *Adimen artifizialaren argi ilunak jardun artistikotik*, Martin Etxauri Txol? (Artista).

11:45. Atsedendia.

12:00. Mahai ingurua: *Adimen artifizialaren ertzak*. Parte hartzaileak: Irati Berasategi (Fisikan gradua. Filosofia, Zientziak eta Balioak masterra), Iñigo Martinez Peña (Filosofian lizentziaduna. Batxilergoko irakaslea), Aitzpea Leizaola (Antropologiako irakaslea EHUn) eta Gorka Azkune (Informatikaria. EHUKo irakaslea eta ikertzaile).

adi entzutea, gure adimena esna mantentzeko, artifizialak gure lanak egingo dituela pentsatu beharrean», esan dute *Ia dena: adimen artifiziala sorkuntzan* jardunaldia prestatu dutenek. Azken batean, adimen artifizialari buruz hausnartzea eta hitz egitea da nahi dutena. Horretarako, arlo desberdinetan lanean ari eta arituak direnak gonbidatu dituzte jardunaldietako saioetara, hala nola zientzialaria, artista, antropologoa, informatikaria, sortzailea nahiz zinema kritikaria izango dira ekainaren 17an Dinamoa sormen gunean nahiz Soreasu antzokian egingo dituzten jardunaldietako saioetan parte hartuko duteneko batzuk.

lea). Moderatzailea: Kulturaz kooperatiba izango da.

*Jon Sanchezek (New Media ikertzailea eta sortzailea) CAF-Elhuyar Sorkuntza beka jaso duen *Semiosi-genesi* proiektua jarriko du abian.

SOREASU ANTZOKIA

17:00. *Androideak eta ardi elektrikoak: adimen artifiziala film eta telesailetan*, Gaizka Izagirre (zinema kritikaria).

17:30. *Bera (Her)* filmaren emanaldia, euskarazko azpitituluekin.

19:30. Amaiera.

Bihar Urolako trenaren diapositiba emanaldia izango da

KULTURA // Herritar askoren oroimenean den Urolako trenaren gogoratu ahal izango dute bihar, haren inguruko diapositiba emanaldia izango delako Burdinbidearen Euskal Museoa. 19:00etan hasiko da *Urolako tren*. Bidaia bat iraganera proiektzioa, Sabino Legarda Ereño le-gazpiarraren eskutik. 1926tik 1986ra arte Zumarraga eta Zumaiara lotu zituen garraio bide hura gogora ekartzeko eta belaunaldi berriek ezagutzeko baliatuko dute antolatzaileek egitasmoa.



Urolako tren. HITZA

Guraso Eskoletako azken saioa egingo dute gaur

GIZARTEA // Nerabezaroa izan dute aztergai Azpeitiko Udalak aurtengorako antolatutako Guraso Eskoletan. Bost saioak osatu tako egitaraua prestatu zuten, eta apirilean hasi ziren. Azkenengo saioa gaur arratsaldean izango da, 18:00etan hasita, Azoka Plazako lehen solairuko aretoan. Gaurkoan, Gaztelekuo hezitzaileen eta gurasoen arteko solasaldia izango da.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago
TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Asteazkena, 2023ko maiatzaren 31

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñitza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@ukt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@ukt.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@ukt.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@ukt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@ukt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@ukt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@ukt.eus.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia


Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Goiza



Arratsaldea



Temperatura

V 23°
A 15°

Mareak

Itsasgora	02:21-14:50
Metroak	3:41-3:46
Itsasbehera	08:37-20:51
Metroak	1:20-1:21

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, asteazkena

Bertso saioa

Azpeitia. Sanjuandegiko feste-tako bertso afaria, 21:00etan, Baigeran.

Hitzaldia

Azkoitia. Migrazio prozesuak: zurrumurruak, pertzepzioak eta jarrerak hitzaldia, 19:00etan, El-garguneko Oteiza aretoan.
Azpeitia. Guraso Eskola: nera-been gurasoen eta gaztelekuko hezitzaileen saioa, 18:00etan, Azoka Plazan.

Odol ateraldia

Azpeitia. Odola ateratzeko deialdia, 16:30etik 20:30era, Par-rokiaren Soreasuko lokalean.

Bihar, osteguna

Jaiak

Azpeitia. Sanjuandegiko jaiak: 19:00etan, Kantu Jira eta pintxo poteoa; 21:00etan, mus txapelke-tako izen ematea; 22:00etan, mus txapelketa, Ongi Etorri erretegan, eta 22:00etan, iluntze musikatua, Edu Zardoyarekin eta Sheldons taldearekin.

Hitzaldia

Orio. Elikadura klimaterio ga-raian hitzaldia Libe Garmendia nutrizionistaren eskutik, 18:00etan, Kultur Etxean.

Zinema

Zumaia. Zineforuma: *Holy Spider* filma, 19:00etan, Aita Mari aretoan.

Etzi, ostirala

Bakarrizketa

Zarautz. Tutum Platz bakarriz-keta Algarapola egitasmoaren barruan, 22:30ean, Arranon.

Kontzertua

Zarautz. Jexuxmai Lopetegiren kontzertua, 20:00etan, Modelo aretoan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Nize musika taldea kontzertua eskaintzen. NIZE TALDEA

Bueltan da berriro ere Mefsst!

Larunbatean ospatuko dute Musika Errebolta Feministaren seigarren aldia, Hiruputzu gaztetxean • Solasaldia, fanzine tailerra, bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte

-ARITZ MUTIOZABAL-

ANDREA ZIPITRIA Zarautz

Sei urteko etenaren ondoren, bueltan da Mefsst! Musika Errebolta Feminista jaialdia, eta datorren larunbatean ospatuko dute, Hiruputzu gaztetxean. Kontzertuetan emakumeek zuten «presentzia eskasak» elkartu zituen antolatzaileak: «Musika-zaleak gara, eta gustuko dugun musika entzun, dantzatu eta sortu nahi dugu. Bide batez, hausnartzea ere nahi dugu. Izan ere, musika eszena askotan gizonen presentzia handia da oraindik, eta nekatu egiten gaitu espazio hori okupatzeko modu eksklusiboak», azaldu dute antolatzaileek. «Zenbaitetan, emakumeen, bollerren edota beste zenbait subjektuen falta sumatzen dugu taula gainean, publikoan, antolakuntzan edota tabernetan», jarraitu dute. Horregatik, musikaren arloari feminismoa begiratzen saiatu dira antolatzaileak. Aurten, jaialdiaren seigarren edizioan, ildo bere-tik joko dute.

Jaialdia berreskuratzearan ideia duela hilabete batzuk otu zitzairen. «Orduan, lagun trans-feminista musikazale batzuk bildu ginen zerbait antolatzeko gogo- z. Kontzertuen bat, mahai ingururen bat edo antzeko zerbait egin nahi genuen, eta azkenean, jardunaldi-jaialdi transfeminista bat osatu dugu». Hain zuzen ere, apirilaren 29an girotze festa egin zuten Orion.

Egun osoko egitaraua

Jaialdiari *Sortuz grabitatearen aurka* solasaldiarekin ekingo diote, 11:00etan, eta ondorengo-ek parte hartuko dute saioan:

Miren Narbaiza, Eneritz Furiy, Ainhua Plaza (Nize) eta Intza Arakistain (Nize). Jarraian, 12:30etik aurrera, fanzine tailerra egingo dute, eta orduete ger-roago, 13:30ean, Airuren kontzertua izango da.

15:00 aldera, bazkari legea egingo dute, eta bertaratu nahi dutenek mefsst6@gmail.com helbidera idatzi behar dute ize-na emateko; bazkarirako 10 euro edo ahal dena ordaindu behar da, eta izena emateko azken eguna gaur izango da. Bazkalostean, musika izango da, baita bingo jo-koa ere.

Arratsaldetik aurrera, kontzertuek eta DJen emanaldiek hartuko dute Hiruputzu gazte-txea: Muare, Nize, Ginger, Zetkin, Leire DJa, Oihana DJa eta Sweet Pineapple DJa ariko dira zuzenean, 19:00etan hasita. Sar-reran 10 euro edo ahal duena ordaindu beharko du bertaratzeko denak.

2013an hasi ziren Zarauzko Putzuzulo gaztetxean Mefsst! egitasmoa antolatzen, tartean

Egitaraua

EKAINAK 3, LARUNBATA

11:00. *Sortuz, grabitatearen aurka* solasaldia. Hizlariak: Miren Narbaiza, Eneritz Furiy, Andrea Plaza (Nize) eta Intza Arakistain (Nize).

12:30. Fanzine tailerra.

13:30. Airu taldearen kontzertua.

15:00. Bazkaria.

Bazkalostean, musika bingoa.

19:00. Kontzertuak eta DJak: Muare, Nize, Ginger, Zetkin, Leire DJa, Oihana DJa eta Sweet Pineapple DJa.

geldialdiak egin badituzte ere, «bizitzaren inertiak eta bestelako arrazoiak tarteko». Mefsst! Musika Errebolta Feministaren bosgarren edizioa antolatu zutenean, «asko dantzatu, gozatu, hausnartu eta ikasi» zutela adierazi dute antolatzaileek, eta «esperientzia gozo» horretatik abiatuta antolatu dutela aurten sei-garren edizioa.